

1.- SARRERA

1.1.- LEGEZKO OINARRIA ETA IZENDAPENA

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan (LAA) espresuki aurreikusten da Erakunde Publikoek Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko Lurraldearen Arloko Plana idaztea; dokumentu horretan honako zehaztapen hauek ezarri beharko dira, besteak beste (9. kapitulua, 5. idatz-zatia):

- a. Jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko eragiketak zein kokapenetan gauzatuko diren identifikatuko du.
- b. Adierazitako jarduketak lurraldearen gunek jakin bakoitzean hartuko duen lurzoru-gainazalaren kuantifikazioa eta jarduketa bakoitzak bete beharko dituen ezaugarrien zehaztapena.
- c. Beharrezko inbertsioen programazioa eta proposatutako esku-hartze publikoen ikuspegia eta bideragarritasuna aditzera emango dituen azterlan ekonomikoa.

LAAetan ez da espresuki aurreikusten Saltoki Handien Lurraldearen Arloko Plana idaztea, baina 18. kapituluaren 2.5. idatz-zatian generikoki aintzat hartzen dira plan hori lantzeko zenbait irizpide.

Dena den, Euskal Autonomia Erkidegoan 1999-2002 legegintzaldiko Jaurlaritzak osatzeko programa-akordioan haxe esaten da espresuki:

Bestalde, merkataritza ere sektore garrantzitsua da gure Autonomia Erkidegoan. Egun merkataritza-banaketaren sektoreko erronkarik garrantzitsuena azalera handien eta espezializatorako gero eta joera handiagoa izan behar duen merkataritza txiki eta ertainaren arteko elkarbizitza da.

Programa-akordio horretan, horrenbestez, besteak beste Saltoki Handien Lurraldearen Arloko Plana landu eta onartzeko erabakia hartzen da.

Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saileko eta Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko arduradun politiko eta teknikoen artean izandako harremanetan, egokitzat jo zuten Erakunde Publikoek Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko LAParen eta Saltoki Handien LAParen lanketa dokumentu bakar batean bideratzea, oso gai garrantzitsuak baitzeuden lurzoruaren okupazioari eta lurraldearen hirigintza-antolamenduari lotuta.

Horrenbestez, lan honen bitartez Erakunde Publikoek Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Eta Saltoki Handiak Sortzeko Lurraldearen Arloko Plana gauzatzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldea Antolatze 4/1990 Legean mota honetako dokumentuetarako ezarritako xedapenei jarraiki.

1.2.- PLANAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

1.2.1.- HELBURUA

"Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua" terminoak mugatze-arazoak ematen dituen hirigintza-erabilera bat definitzen du.

Lurraldearen Arloko Plana izenak berak bere aplikazio-esparruaren irismena malgutasunez erlatibizatzeke premia adierazten du, hala Jarduera Ekonomikoetarako Lurzoruaren adiera generikoaren hedadurari, nola Saltoki Handiak termino zehatzagoari dagokionez.

Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua adierak garatu ahal izateko nolabaiteko azalera-tamainako espazio- edo lurralde-euskarria behar duten enpresen esku-hartzeko sorta zabala hartzen du gaur egun. Planteatzen den arazoa ekonomia-errealitate sakabanatu eta dinamiko hau hirigintza-araudi baten esparruan akotatu eta sistematizatzean datza, izan ere araudi horrek ezinbestean arautu eta kategorizatu behar baitu bere kasuistika, nahiz eta hau oso malgu planteatu.

Tradizionalki industria-erabileren adieran barne hartzen diren produkzio-prozesu gehienak (Bigarren Sektorea, IESNko sailkapenaren arabera) jarduera ekonomikotzat onartuz gero, lehen sektoreari edo hirugarren sektoreari atxikita dauden baina beren izaeragatik industria-lurzorutzat onartu ohi denaren pareko ezaugarriak dituen lurzoru eskatzen duten beste jarduera ekonomikoa batzuk aztertzerakoan sortzen da arazoa. Adibide gisa besterik ez bada ere, hasiera batean lehen sektorean sortu ziren eta eskala eta funtzionaltasun intentsiboa hartu duten instalazio batzuk (landetxeak, upeltegiak, zerrategiak, harrobiak eta abar) eta behar bezala garatu ahal izateko eremu zabalak behar dituzten hirugarren sektoreko jarduerak aipatuko ditugu, lekuari dagokionez industria-poligono tradizionalen pareko arazoak dituzten guneak sortzen dituztenak hain zuzen (hipermerkatuak, garraio-guneak, biltegiak eta bulegoak dituzten banaketa-eremuak, enpresentzako zerbitzu-guneak eta abar).

Lurraldearen Arloko Plan honen oinarritzko irizpidetzat hartu da beren jarduera ekonomikoak garatzeko euskarri fisiko gisa bizitegi eta zuzkidura moduko hiriguneetatik kanpo hirigintzaren ikuspegitik prestatutako lurzorua behar duten ekonomia-eragile guztiek sortutako lurzoru-eskari guztiak aintzat hartzea, haien artean bereizketarik egin gabe eta, horrenbestez, produkzio-jarduerak eta hirugarren sektorean barne hartutakoak bereizi gabe.

Halaber, 7.2. epigrafean Lurraldearen Arloko Plan honen aztergaia zehazten da, saltoki handien berriazko eremuaren lurralde-arautzeari dagokionez.

1.2.2.- LOTURA-MAILA

Planaren irismenak ez du Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia-problematikan eragina izateko asmorik, ezta industria edo merkataritzaren arloko problematikan ere. Horretarako, kasu bakoitzean politika orokorrak edo abagunekoak definituko lituzketen Plan Estrategiko sofistikuak egin beharko lirateke, baldin eta horiek egitea kanpoaldearekiko mendetasun handia duen erkidego txiki baterako egingarria eta operatiboa balitz.

Industriako Plan Estrategiko bat jorratzeko lanean protagonismo bereziarekin esku hartu beharko lukete, beste hainbat gizarte-eragilez gain, Eusko Jaurlaritzako eta foru-aldundietako Ekonomia, Industria, Lan, Ogasun, Herri Lan eta Garraio sailek eta beste zenbaitek, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak baino neurri handiagoan, honen ardura bakarra planteatutako garapenak ezartzeko beharrezko euskarria den lurzoria antolatzea izango bailitzateke.

Bidezkoa da, ordea, Ekonomia Jardueren Plan Estrategiko bat lantzeko aukera gorabehera, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak, lurraldea antolatzeako berariazko eskumena duenez gero, beharrezko lurzoruaren antolamenduari buruzko irizpide orokorrak ezarriko dituen eta jarduera ekonomikoa garatzeko erreserbatutako lurzoruaren lurralde-kokapenerako eta dimentsionamendu kuantitatiborako ildo nagusiak proposatuko dituen plangintza-tresna bat edukitzea.

Ekonomia eta industriaren bilakaerari buruzko etorkizuneko edozein planteamendu epe ertain eta luzera gutxieneko sinesgarritasunarekin ezartzeko bideraezintasunaz eta, areago, inplikaturak dauden eragileek kontrastatu eta bere gain hartutako hazkunde-hipotesiak epe laburrera ezartzeko zailtasun itzelaz jabeturik, Lurraldearen Arloko Plana idazteko eraginkorrenzat jotzen den planteamendua "antolamendu markoko" estrategia bat hartzean datza. Estrategia honek, jakina, hazkunde-fase eta dinamika desberdinetara irekia izan behar du denboran eta malgua espazioan, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldea azpizatitu den eskualde-egitura edo eskualde desberdinetan alternatiboki kokatutako garapenak hartzeko, eta orobat, aurrekontuko esku-hartze eta ekonomia-eragileko maila desberdinetara moldatzeko gauza izan behar du, jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sustatzeko denboran zehar har litezkeen politika desberdinen arabera.

Begi-bistakoa da plangintza-tresna honi malgutasuna eman behar zaiola, gauza izan behar baitu aurreikusi ez diren premiak txertatzeko, programa berriak bere gain hartzeko, ustekabeko lurralde-dinamikak hartzeko eta desfaseak gertatu ahala zuzentzeko. Horrenbestez, Lurraldearen Arloko Plana jarduera ekonomikoaren asentamenduak lurraldean kokatzeko funtsezko bideratze- eta sistematizatzeko tresna izango den plan ireki gisa planteatzen da. Eta eskala-ekonomietan ahalik eta arrazionaltasun handieneko irizpide orokorrak aplikatuz, azpiegitura orokorrak ahalik eta hobekien aprobetxatuz, espazioa orekaz banatuz eta ingurumenaren- problematikaren aurrean neurrizko sentikortasuna azalduz beteko du eginkizun hori.

Ezaugarri hauek dituen plan bat operatiboa izan daiteke ekonomia-arloko politika desberdinen garapenetik sortzen diren zehaztapenekin ezin gaindituzko kontraesanak planteatu gabe.

Beraz, Lurraldearen Arloko Planaren oinarriko proposamenek eta funtsezko irizpideek honako puntu hauek hartu behar dituzte ardatz: ekonomia-garapeneko oinarriko iraganbideak definitzea, enpresa-hazkundera nagusiki garatu behar den esparru gisa; estamentu publikoek lehentasunez bultzatzekoak izan daitezkeen erakargune estrategikoak aukeratzea; eta iraganbide nagusiez kanpo dauden

esparruak edo hirigintza-erabilera alternatibokoak izan daitezkeen eremuak nahiz nekazaritza eta abeltzaintzako edo ingurumeneko interes bereziko zona naturalak babesteko eta bertan industria-okupazioa murrizteko politikak ezartzea.

Hortaz, epe luzera egoerak aurreikusteko eredu irekia proposatzea da helburua, lurralde-egituran kontraesan larriak sor ditzaketan eta ingurune fisikoari kalte konponezinak eragin diezazkieketen abaguneko interesen gainetik erabakiak hartzea errazagoa izan dadin.

Bestalde, 4/1990 Legean aintzat hartutako formulazio eta izapidegintzako prozesuak berak, dagozkion faseak bilduz, hau da, aurrelaburpena, hasierako, behin-behineko eta behin betiko onarpena, autonomia-erkidegoko zein foru-administrazioko hainbat sailen parte-hartzea, toki-erakundeena, eta ekonomia- eta lurralde-plangintzako beste tresna batzuekin bateragarria izan beharrak bermatu egiten dute planean erabakitzen diren zehaztapen lotesleak malguak eta gutxi gorabeherakoak izatea. Betiere, eredu itxi eta zurruna saihestea izan da helburua, berori orokorrean zalantzan jartzeak birtualtasuna kenduko bailioke planaren zehaztapenei eta proposamenei oro har.

LAParen antolamendurako arauak izeneko 8. kapituluan, planean arautzailatzat hartzen diren xedapen eta proposamen guztiak zehaztasunez finkatzen dira eta dagokien lotura-maila zehazten da.

1.2.3.- DENBORA-HORIZONTEA

Lurraldearen Arloko Planaren oinarrizko edukien multzoak denbora-aspektu zabaleko ekonomia-dinamiken eta hirigintza-prozesuen analisisian eta proiektzioan sostengu hartzen duen argumentu-logikari erantzuten dionez, denboran mugatutako horizonte bat definitzea komeni da Planaren proposamen-multzorako erreferentzia-esparru gisa.

Lan hau Euskal Autonomia Erkidegoko eskualde-egituretarako Lurraldearen Zatikiko Planak lantzeko prozesuari dagozkionekin koordinatzeko asmoz eta hauentzat 16 urteko erreferentzia-esparrua ezarri denez gero, 16 urteko denbora-horizonte bera aukeratu da Lurraldearen Arloko Planean egindako kuantifikazioak eta aurreikuspenak igortzeko muga kronologiko gisa.